



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) - CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2023ko uztailaren 6an, goizeko bederatzietan, Aezkoako Batzarre Nagusiak, premiazko bilkura berezia egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/anderak:– Anchorena Elizagaray, Francisco - Galarza Larrayoz, Maria Carmen — Merino Iriarte, Juan Esteban – Santomá Vicens, Gonzalo.

LEHENENGOA.- PREMIA BERRESTEA

Jakinarazi da hornidura elektrikoko lanen esleipena egin behar dela, inbertsioetarako laguntzen deialdian aurreikusitako exekuzio- eta justifikazio-epeak bete ahal izateko. Osoko Bilkurak aho batez berretsi du premia eta aurreikusitako gaia aztertzeari ekin zaio.

BIGARRENA.- ARRAZOLAKO EREMUAN ARGINDARRA ERAMATEKO OBRAK ESLEITzea.

Autokarabanan zerbitzuen arlorako hartune elektrikoko obren kontratua esleitzeko lizitaziorako proposamenak aurkezteko Kontratazio Atariaren iragarkian zehaztutako epea amaituta, bi enpresa inskribatu ziren, eta enpresa bakar batek aurkeztu zuen proposamena, PLENA-ko lizitazioaren espedientean jasota dagoenaren arabera.

Kontratazio mahaiak baloratu ditu B gutun azalari (Proposamen Teknikoa) dagozkion balorazioak eta puntuak esleitu dira, koadro honetan jasota dauden moduan:

	Obraren planteamendua	Obra plana	Irizpide sozialak	Burutu ondoko zerbitzua
	25	10	5	5
Puntuak	12	0	5	5
	Proposamen teknikoa, guztira		21 puntu	

C gutun-azala (formula bidez zenbatetsi daitezkeen irizpideak), Lizitazioaren gainean (aurrekontua, 119.364,09 €) jarraian zehazten diren puntuak eman dira:

	Proposamen ekonomikoa	Bermearen epearen luzapena
	50	5
ESKAINZA	101.913,06	5 urte
Puntuak	50	5
	Formula bidez zenbatetsi daitezkeen irizpideak, guztira	
	55 puntu	

Mahaiak Montajes Eléctricos NOI SLren aldeko esleipen proposamena egin du. 76 puntu lortu ditu, eta 101.913,06 eurokoa izan da eskaintza ekonomikoa, alegia, lizitazio prezioa baino %14,62 merkeago. Gutun azal guztien baremazioa amaitu ondoren, Mahaiak erabaki du, kontratazioa arautzen duen baldintza pleguan ezarritakoaren arabera, esleipen proposamenaren berri ematea lizitatzailerari, baldintza agiriko 14. klausulan adierazitako dokumentazioa aurkez dezan.

Uztailaren 5ean, enpresak dagokion dokumentazioa aurkeztu du, eta, beraz, esleitzeko erabakia hartu behar da.

Osoko Bilkurak, espedientea eta Kontratazio Mahaiaren proposamena aztertu ondoren, erabaki du Montajes Eléctricos NOI SL enpresari esleitzea lurpeko hartuneko obra-kontratua (20 Kv-koa) eta Arrazolako autokarabana gunerako transformazio zentroa (Orbaizeta, Nafarroa), 101.913,06 euroan, betiere kontratazioa arautzen duten baldintzak eta esleipendunak aurkeztutako eskaintza betetzen badira.

Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 101. artikuluan xedatutakoaren arabera, esleipenaren eraginkortasuna eten eginen da hamar egun naturaleko epean, adjudikazioaren jakinarazpena igortzen den egunetik zenbatzen hasita, baldin eta igorpen hori bitarteko elektronikoen bidez egiten bada. Horretarako, agertarazi da jakinarazpena gaurko egunarekin egin dela.

Eta aztertzeko gai gehiagorik agertu ez baita, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako eguneko bederatziak eta hogeita hamarrean. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.